

Berdearen negozioa

GOLF ZELAIK KOKATZEKO EGITASMOAK. Hego Euskal Herriko hainbat herritan golf zelaietan batera operazio urbanistiko handiak abiatu nahi dituzte enpresa pribatuek eta udalek

ESTITXU UGARTE - GASTEIZ

Euskal Herriko hainbat parajetan Txema Olazabalen neurria egini-ko zelaien egitasmoak abian dira. Golf zelaiaren negozioa finantzatzeko, eta eraikitzaileek eginen duten inbertsioaren «ordain gisa», urbanizazioak, igerilekuak eta hotelak eraikitzea proposatu dute hainbat udal argitarik.

Guardiako (Araba) alkatea da, besteak beste, planteamendu horren defendatzaile sutsua. «Golf zelaiaren atzean inbertsio handia dago. Hortaz, 50 milioi euro inbertituko duen lagun batek aukera izan behar du gero irabaziak lortzeko», iritzi dio Guardiako alkate Javier Sampedro (PP). Halere, Guardiako da une honetan etorkizun ilunena duen egitasmoa. Eusko Jaurlaritzak atzera bota baitzuen otsailean Errioxako Udalak aurkezturiko plana. Halere, alkateak erantzun zuen proposamena moldatu eta berriro aurkeztuko duela.

Guardiako Udalak urteak daramatza golf zelaiaren eta urbanizazioaren egitasmoak martxan jarri nahian. 2002an udalaren arau urbanistikoak aldatu zituen PPK, 18 zuloako golf zelaia eta 100 etxebizitzako urbanizazioa eraikitzeko. Egitasmoak, baina, ez zuen aurrera egin. Alkatearen irudiko, inbertsio handia eta etekin txikia eskaintzen zizkien Udalak enpresaburuei.

Hortaz, proiektu handiagoaren bila aritu zen Udala, eta 2004ko irailean AEBetako enpresaburu talde batek aurkeztutakoa onartu zuen udalbatzak. 120 milioi euroko inbertsioa proposatu zuten estatubatuarrek, Kantauriko mendatearen azpian, 1,7 milioi metro koadro okupatuko zituen 520 etxebizitzako urbanizazioa, 36 zuloako bi golf zelaia, hotela eta aisialdirako gunea eraikitzeko.

Eusko Jaurlaritzaren Ingurumen eta Lurralde Antolamendu Sailak, baina, atzera bota zuen proposamena. Etxebizitza kopuru handiegia proposatzen duela, ura hartzeko modua ez duela zehazten eta oso ingurune natural ahulean eragin handia izango duela argudiatu zuen.

Halere, Arabako Errioxan ere, Oionen eta Bastidan hain zuzen, antzeko egitasmoak martxan dira. Luxuzko 800 etxebizitza eta 18 zuloako golf zelaia eraikitzea proposatu dio Proconsol enpresak Oiongo Udalarai.

Etxebizitza gutxiago, 800 inguru, eta 600.000 metro koadroko golf zelaia egin asmo du Bastidako Udalak San Gines parke publikoaren inguruan, Toloño mendiaren azpian. Egitasmoari eusteko justifikazioa «herriaren gainbeheraren inguruan herriki-deen artean sumatutako ezinegona» da, Udaleko arduradunek azaldu dutenez.

Lehenbiziko urratsa 2003. urtean egin zuten hiru sustatzaile pribatuk, San Gines Labastida S.A elkartearen sortuz. Ondoren, Bastidako udalbatzak Labastida Gestion Municipal S.L. elkartearen eratu zuen, golf zelaiaren egitasmoan parte hartu ahal izateko. Bastidako Udalak kapitalaren %20 jarriko luke, lursailetan. Hortaz, jada lursailak erosten hasi da Udala.

Hala ere, egitasmoarekin ez dute bat egiten Bastidako herritar ugari, eta duela hilabete gutxi Torrolate elkartearen sortu zuten, «Toloño mendia eta bertako inguruak babestu, interes espekulatiboei aurre egin, eta gutxi batzuk guztiona den ingurunearekin aberastu ez daitezen». Dagoeneko, 700etik gora sinadura jaso dituzte Bastidan eta Buradon Gatzagan, egitasmoaren kontra.

Bastidako Udalarai herritarren artean behar bezalako eztabaida bideratzeko eskatu dio plataformak. «Orain arte alkateak trabak besterik ez dizkigu jarri», nabarmendu du Veronica Beitia Torrolateko kideak. Gainera, herritarren artean asaldura handia dagoela gaineratu du Beitia. «Nabaria da herriko jendea oso urduri dagoela, iluntasuna nagusi baita Udalaren jokaeran».

Ondorioz, behar bezalako informazioa zabaltzen eta herritarren parte-hartzea bermatzen ez den bitartean, golf zelaiaren egitasmoa bertan behera uzteko eskatu du Torrolatek.

Nafarroako Erriberan egitasmo ugari dago

Arabako Errioxa bezala, Nafarroako Erribera ere golf zelaiaren eta urbanizazioaren sustatzaileen erakargarri bilakatu da. Egun, Gurelur talde ekologistak azaldu duenez, lau egiteko asmoa dago: Tuteran, Fiteron, Fontellas eta Arguedasen, hain zuzen.

Dena dela, Noelia Lopez Gurelur taldeko kideak zehaztu duenez, «bidean dagoen egitasmo bakarra Fontellasko da; gainerrakoen berri komunikabideen bitartez izan dugu, baina ez

Datua

24

Egun, zulo kopuru eta neurri ezberdineko 24 golf zelai daude Euskal Herrian.

Arabak: Altuben, Bernedon, Lagranen eta Landan.

Bizkaian: Algortan, Larrabetzun, Mungian eta Zugaztietan.

Gipuzkoan: Donostian, Andoainean, Hondarribian eta Zarautzen.

Nafarroan: Berrioplanon, Gorraizen, Lizason, Ultzaman eta Zuastin.

Lapurdiin: Angelun, Arrangoitzen, Basusarrin, Donibane Lohizunen, Miarrizten, Urdazurin eta Ziburun.



VERONICA BEITIA

(Torrolate elkartearen kidea)

«Trabatu nahi dugu gutxi batzuk guztiona den inguruarekin aberastea»

NURIA LOPEZ

(Gurelur taldeko kidea)

«Astakeria da eskaera ez dagoen lurraldean golf zelaien eskaintza erraldoi bat egitea»

JONE ETXEBERRIA

(Oiongo bizirik plataformako kidea)

«Golf zelaiak Oiongo balio naturalak arriskuan jartzen ditu»

dago ezer zehaztuta, zinegotziek hedabideei eginiako adierazpenak besterik ez».

Fontellas, bai. Iragan urteko irailean egitasmoaren kontrako alegazioak aurkezteko epea zabaldu zuen Nafarroako Gobernuaren Ingurugiro Sailak. Alegazioak aztertu ondoren, egitasmoak aurrera egin dezakeen erabakiko du. Tennis Club Cerro Fontellas eta Construcciones Monrepos dira Erriberako golf zelaiaren eta urbanizazioaren atzean dauden enpresak. Eta 582.212 metro koadroko gunea hartu nahi dute.

Gurelur taldeak alegazioak aurkeztu zituen. Batetik, ingurunean eta faunaren egitasmoak izango duen eragina nabarmendu zuen. Bestetik, golf zelaiak hartuko dituen lurrien zati handi bat nekazaritza produktibitate handikoa dela azaldu zuten ekologistek, eta, Nafarroako Gobernuaren araudiaren arabera, galarrizita dago landa eremu produktiboak okupatzea.

Bi argudio horietaz gain, ekologistek arazo nagusia orokortasun faltan sumatzen dute. Alegazioen txostenean jasotzen zuten, «Fontellasko egitasmoak ez du eskualdearen ikuspegi orokorra jasotzen. Lau golf zelaia jarri nahi dituzte oso distantzia txikian, zonalde lehorrean, eta uraren defizita duen lurralde batean». Gainera, Lopezek azaldu duenez, gizartearen ikuspuntutik «astakeria da eskaera ez dagoen lurralde batean golf zelaien eskaintza erraldoi hori sortu nahi izatea».

Ordiziako Oiongo parkearen etorkizuna, kolokan

Ordizian (Gipuzkoa) egin nahi duten golf zelaiak ere zeresan handia sortu du herrian, ez luxuzko etxebizitzak edo urbanizazio erraldoiak proposatzen dituelako, baizik eta Oiongo udal parkearen erabilera publikoa nabarmen mugatzen duelako.

Bi milioi euro inguruko inbertsioa du egitasmoak, eta golf zelaia, paint-ball-eko pista, 20x10 neurriko igerilekua, taberna, bi izarreko hotela, jatetxea eta aparkalekua biltzen ditu. Iragan urteko otsailean onartu zuen Ordiziako Udalak Oiongo parke publikoaren ustiapena 40 urtez Ikena S.L. enpresari ematea. Ikena enpresaren asmoak eta Udalaren erabakiak, baina, berehalako erantzuna izan zuten.

Herritar talde batek Oiongo Publikoa eta Bizirik Plataformak



TOLOÑO BABESTU. Goizalde Portillo eta Verónica Beitia

sortu zuen, parkearen pribatizazioaren kontra, eta ordiziarren parte-hartzea eta erabakitze eskubidea aldarrikatzeko. Era berean, plataformako kide Jone Etxeberriak azaldu duenez, «golf zelaiak eta paint-ball pistak Oiongo balio naturalak arriskuan jartzen ditu».

Plataformak eskatuta, EAEko Arartekoak bi txosten egin zituen, azkena otsailean. Kontzesioa bertan behera uzteko eskatu zion Ordiziako Udalarai Iñigo Lamarcak, «hainbat akats eta hutsune» antzeman baitzuten tramiteetan. Bide instituzionalaz gainera, plataformak beste bide batzuk jorratu ditu egitasmoa gelditzeko. Hortaz, urtebetez informazio kanpaina handia egin dute Ordizian, eta Goierri osoan zabaldu dute aldarrikapena. Gainera, herritarren 3.000 sinadura inguru lortu dituzte egitasmoaren kontra.

Aisialdi gunearen sustatzaileek eta Udalak, baina, egitasmoari eusten diote. Batetik, parkearen egungo erabilera ez dela murriztuko adierazi dute. Bestetik, Ordizia suspertzeko eta turismoa erakartzeko baliagarria izan daitekeela diote.

Artxandakoaz gainera, beste bi egitasmo Bizkaian

Bizkaian, azken urte hauetan, zenbait egitasmo martxan jarri dira, eta abian dira beste batzuk.